

TRANSMISIOA ETA ERABILERA

Bilbao
2009

© Mendebalde Euskal Kultur Alkartea

Edizioaren arduradunak: Kaxildo Alkorta eta Eneko Barrutia

Azaleko irudia: Idoia Aiestaran

Fotokonposaketa: Ikur, S.A.

Silutegia: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-931882-9-0

Legezko Gordailua: BI-1037-09

Aurkibidea

Aurkezpena	
<i>Kaxildo Alkorta</i>	7
Zelako euskaldunak, halako kopurua..., edo Soziologiaren erantzuna	
<i>Iñaki Martínez de Luna</i>	11
Euskeraren erabilera mundu globalizatu batean	
<i>Iziar Basterretxea</i>	43
Prosodiaren transmisioaz eta beronen azterketaz	
<i>Iñaki Gaminde</i>	73
XXI. mendeko euskaldunak: "Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!"	
<i>Kike Amonarriz</i>	113
Nola eutsi diogu gure euskarari?	
<i>Mattin Irigoien</i>	143

Herriko berbeta oinarri, ahozko jarduna hobetzeko ahaleginetan <i>Estepan Plazaola Otadui</i>	183
Euskararen transmisioa Zallan <i>Juanjo Zorrilla eta Alberto Mardones</i>	221
Transmisioaren ondarea <i>Juan Manuel Etxebarria Ayesta</i>	243
Ingurumari kulturalaren garrantzia hizkuntzaren transmisioan <i>Akaitze Kamiruaga</i>	277
Euskerearen transmisioa Euskal Herritik kanpo <i>Estibaliz Amorrortu</i>	297
Karmele Rotaetxe Amusatagiri Omenaldia <i>Xabier Alzibar</i>	313

Aurkezpena

Kaxildo Alkorta

«*Betiko*» esango dau batek baino gehiagok liburu honen azaleko izenburua ikusitakoan. Eta liburuko aurkibidera jo eta, artikuluko bakotxaren izena irakurtzean, zer pentsatuko dau? Hona zein diren:

Zelako euskaldunak, halako kopurua... , edo Soziologiaren erantzuna
Euskeraren erabilera mundu globalizatu batean
Prosodiaren transmisioaz eta beronen azterketaz
XXI. mendeko euskaldunak: «Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!»
Nola eutsi diogu gure euskarari?
Herriko berbeta oinarri, ahozko jarduna hobetzeko ahaleginetan
Euskararen transmisioa Zallan
Transmisioaren ondarea
Ingurumari kulturalaren garrantzia hizkuntzaren transmisinoan
Euskerearen transmisinoa Euskal Herritik kanpo

Izenburu horreek irakurrita, zer pentsatuko dau ba? Betiko kontuak, betiko gaiak, betiko gogarteak, betiko zerak... dirala, horixe. Eta neurri baten halan da, baina halan-halan be ez da, bai zera!

Esan eta idatzi gabilz, mendez mende izan dauen transmisinoa eteteko arriskuan dogula euskerea, ingurugiro jakin baten ugerrean etorri jakula guganaino, baina gaur egun, babes inguru hori ur-laster barri eta arrotzek –bortitzek gainera– astintzen daben honetan, euskerea ahultzen eta galtzen joakula. Holan da hori, ez dago ukatzerik.

Arriskuak inguratuta dekonak, aurren-aurrena arriskuan dagoela konturatu behar dau galzoritik urtengo badau, eta pentsatu behar dauena da nora urten behar dauen, nondik zehar joan behar dauen, zelan, zer eginaz, eta noiz: *nora, nondik zehar, zelan eta noiz*.

Hizkuntza indoeuoparrek eta latinak mende hartu zituen Europako mendebaldeko hizkuntza guztiak. Baebe indarra! Halandabe, hamen dogu gure euskerea, inok ez dakiela zelan edo zergaitik salbatu zan. Orduko euskaldun hareek arriskuaz konturatu ete ziran? Ze diagnostiko egin eben, eta ze urtenbide ikusi, ze jardunbideri jarraitu eta ze bitarteko erabili? Guk ez dakigu.

Azken urteotan lan handia egin dau hainbat zientzia eta irakasgaitako hainbat aditu-taldek euskereari jagokon hainbat arlo aztertzen, eta transmisinoarenari garrantzi itzela emon eta serio azertu dabe. Gaur egun, gagozanean, ez dabe balio «*gure etxean, behintzat euskeraz egiten dogu beti*»-eta horreek; askotxo gehiago behar da, eta horretan dihardue.

Liburu honetan jasota daukazuzan txostenak egin dituenek –zeuk ikusiko dozu–, bakotxak berean, informazino zabala bezain zehatza emon dau. Hona, nahasi zabarrean, esaterako, gai honeek: inkesta soziolinguistikoak; zaharrek gazteek baino gehiago (edo gutxiago) egiten daben euskeraz eta nork hobeto; umea ikastolan sartu euskerea han ikasiko dauelakoan eta, hala, hizkuntza biak jakinda, gero zein erabili berak aukeratuko dauelakoan; zertan eta non galtzen ala irabazten gagozan; euskerea eta industrializazinoa, unibertsitateak, komunikabideak, eskolak, eleizak; aspaldiko etorkinen eragina eta gaur eguneko etorkinak euskaldundutzeko jardunak eta emaitzak; euskerea euskal diasporan, adibidea: Nevadako Elko; euskerearen

aztarnak munduan zehar: euskeran oinarritutako pidgin aldaerak; guraso erdaldunen ume euskaldunen eta ume euskaldunen guraso erdaldunen arteko berbetak; zer dala-eta belaunaldi biren epeko gale-
ra leku batzuetan, Iparraldean zer?, eta Zalla aldean?; interlokutorearen araberako erregistro-erabilera: xuka, hika, zuka eta ezatabadaka bereizten ikasi ebenena; 15 urte inguru, euskerearen berreskuratze deliberoa hartu ebanarena... Jarraitu egin behar dogu? Txostengile bat baino gehiagoren bizitzako esperientziak bere jasota dagoz, bizigarri.

“*Eutsi goiari*”. Hori da. Halandabere, egokiagoa da, beharbada, gure lagun batek –aulestiarra bera eta xestaz jokatzen munduko bazter askotan ibilia–, arazoak diranean esaten dauena: «*Eutsi harriari*». Erantzuna: “*Eutsiko deitsagu*”.

